

A este aplauso del pueblo siguió la aprobación de los magnates, que á su vez creyeron ver sintetizados en aquellas originales notas los románticos ensueños de su raza, la expresión del sentimiento popular en su más alto grado; el espíritu fugaz que exteriorizaba de una manera vaga y poética las cualidades más salientes de su carácter.

La canción del músico proscrito se generalizó en breve por todo Aragón, luego por toda España, y desafiando al tiempo al través de los siglos, llega hasta nosotros cristianizada con el nombre de *Jota*, único tributo que el pasado rinde al apellido del moro valenciano que la creó.

SECCIÓN AMENA

BURNI BIDIAN

Beigazte bat saldu ta
lengo egunian
Pillipe, Donostiyan
sartu zan trenian,
ateratutzen dana
goizetan Iruna,
akullu bat zubela
betiko laguna
eta topo egin du
ez bat eta ez bi,
bere adiskide bat
Antoniyo Begi.
Asi dirade biyak
chit *promal* izketan
ganadu, sagar eta
arto kontuetan,
oroituaz zanpatzen
zuten talo, gazta,

botiaz otsegiñaz
lasai chisti plasta
eta pipa beltzeko
kiak, an ziranak
ito nayan lajiaz
eztulka dianak.
—¡Beraz leku abetan!
—Emen Antoniyo
bizi biar degu ¡zer!
¡milla demoniño!
—¡Ala da, ¿Orain nora
zuaz emendikan?
—Errira; Zizurkilla
Billabonatikan.
—¿Eta zu nora zuaz
bide ontan bera?
—Errenteyatik nua
Oyartzun aldera

egiteko batekin
 eta asmuetan,
 echeratutzeko gaur
 nere kontuetan.
 —¡Nork esan biar zuben
 arkitzia emen!
 —Ala da, ori ben
 pentsatutzen nuben.
 —¡Jesús! gaurko gizonak
 zer sortzen dituzten!
 —¿Baña zergatik ori
 dirazu esaten?
 —Gizona, nere ustez
 garbi asko dago,

etzan ez onelako
 konturik lenago.
 Zu Oyartzuna zuaz
 ta ni Zizurkillan;
 zu zure gauzetara
 ta ni eche billa;
 ala bide batian
 gertatzia onla,
 jendez kontu makala
 arrapiak pola!
 —Arrazoyian zaude;
 egiya da ori,
 —Ain da egiya eta
 gezurra diruri.

*
* *

¡ETA KONTENTU!



Dantza leku batetik
 labetan irten da,
 echera zijuala
 Jose Martiñ Landa,
 bi lapur ateratu
 zitzaizkan bidera,
 beste dantza aldi bat
 erakutsitzera.
 Erortzen zan izotza;
 erortzen zan jela
 eta biyen artian
 arturik berela
 bi minutuban utzi
 dute mutill ura,

amak bigaldu zuben
 bezela mundura.
 Otzak kaskaska eta
 bildurtuba beti,
 baña joan ziranian
 lapurrak urruti,
 onela mintzatzen zan
 zerebait poztuba,
 kaliaren erdiyan
 lapurrakostuba.
 —¿Zer uste dute kendu
 diratela dana?
 ¡datozela kentzera
 dantzatu detana!

V. IRAOLA.

